

DROGETZEN

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 282. zenbakia. 2019ko urria

FERRE



**San Martin
Azokak
30 urte**

Azaroa ospakizun garaia da Ermuan...

adi datorrenari!



Zeharkalea 8, behea ♡ 943 17 71 34 ♡ clinicadentalirale.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amalia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Libe Solozabal.

LAGUNTZAILEAK:

Txabi Arnal,
Maritxu Arroyo,
Ermua BHI,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
Mari Tere Urkidi,
Mari Karmen Urkidi,
Bego Urkidi
eta Maite Unzurrunzaga.

ARGAZKIAK:

Berbalagun egitasmoa,
Debegesa, Ermua BHI,
Etxaldeko Emakumeak,
Idurre Galarraga,
Innobasque, Ana Martin,
Valentin Mugarza,
Arrate Oiarbide, Maite
Unzurrunzaga, Dorleta Vidal
eta Angel Zelaleta.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Ume kantua

Eman eman eman

Eman eman eman
eman eskutxuakin,
apurtu arte zure burutxua!

Eman eman eman
eman eskutxuakin,
apurtu arte buru gogor hori!



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Arrate Oiarbide (Belgika)	BOTEPRONTOAN..... 16 Goretti Gerrikabeitia
ELKARRIZKETA5-7 Ametz Ladislao	KIROLZALE..... 17 Jon Zalduegi
MALLABIAN ZER?8-9 Arandoñogoiiti baserria	IRITZIA 18 Andoni eta biok
ERREPORTAJEA 10-11 Gazte Alai, 50 urte dantzan	ZORION-AGURRAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? 12 San Martin Azokako berriak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN 13-14 Juan Valdubieco 100. maratoia	SAREAN GALDEZKA21 Zenbat urte beteko ditu Drogeteniturrrik azaroan?
ESKOLEN TXOKOA 15 Ermua BHIko ikasleen berriak	AZAROKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Arrate Oiarbide

Atzerrian lan egiteko gogoak eraman zuen Arrate Oiarbide atzerriara. Ermuar honek ia 20 urte daramatza Belgikako hiriburuan, lanean eta aldi berean herrialde hark eskura ipintzen dion kultur eskaintzaz gozatzen.

- Duela zenbat urte joan zinen Ermutik? Zergatik?

Orain dela 18 urte etorri nintzen Bruselara, Europako Batzordean lanean hasi nintzenean.

- Erabaki erraza izan zen?

Bai, erraza izan zen. Uni-bertsitatea bukatu eta gero, beti izan nuen atzerrian lan egiteko gogoia.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen?

Egia esanda ez nuen Brusela aurretik ezagutzen. Ezagun bat neukan Euskadiko Delegazioan lanean, eta bera ikusterakoan inbidia sentitzen nuen beti, eta atzerrian lan egiteko gogoia sortzen zitzaidan.

- Eta nolakoa da Brusela?

Espero nuena baino hobea. Nire iritziz Brusela hiri

oso polita da, eta kultura aldetik oso aberatsa da: zinema-areto eta antzoki asko ditu, eta parke txiki pilo bat auzo guztietan. Asko maite dut Brusela, eta oso gustura bizi naiz hemen. Jendea jatorra da eta azken urte hauetan *mediterraneoagoa* bihurtu da: denda pila bat zabaldu dute, ardo tabernak, garagardo tabernak, terrazak... Horri esker giro handiagoa dago kaleetan.

- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?

Bertako hizkuntzak frantsesa eta flamenkoa dira. Nik frantsesa erabiltzen dut kalean eta dendetan. Ez dut flamenkoa hitz egiten, oso zaila delako niretzat. Lanean, aldiz, ingelesa erabiltzen dugu gehien bat; eta lagune-



kin, gaztelania eta euskara. Euskadiko lagun batzuk ditut hemen, eta haiekin euskaraz aritzen naiz.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Bai, familia eta lagunak. Gertuago egongo balira...!

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Astean zehar lanera noa eta yoga egiten dut. Lehen ingelesa eta frantsesa ikasten nituen ere, baina orain alfertuta nabil.

- Eta nola betetzen duzu aisialdia?

Denbora librean lagunekin elkartzen naiz eta astero

garagardotegi berezi batera joaten gara. Sarritan zinemara goaz eta antzerkiera ere, hemen aukera zabal-zabala dago. Udaberrian eta udan, bizikleta hartu eta hortik zehar ibiltzera joaten naiz, edo tenisean apurtxo bat jokatzera.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Irailean egon nintzen, oporretan.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, egunen batean. Ermura edo beste edonora Euskal Herrian.

Libe Solozabal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Amets Ladislao, Etxaldeko Emakumeak taldeko kidea:

“Elikadura subiranotasuna nahi dugu, bizitzak eta natura lehenetsiz”

2014an ekin zion bideari Etxaldeko Emakumeak elkarteak, agroekofeminismoaren aldeko taldeak. Euskal Herriko toki eta perfil ezberdinetako emakumezkoek bat egin dute nekazaritza, ekologia eta feminismoa uztartzen duen mugimendu honekin, eta euren proposamenak zabaltzen dihardute azkenaldian.

Agroekofeminismoa: antolatu, landatu eta gozatu! erakusketa horren adibide da. Hamabi irudiz osatutako erakusketa hau Ermuko Emakumearen Topalekuan egongo da ikusgai urrian, eta hilaren 24an Amets Ladislao baserritarrak gidatutako bisita egingo da. Agroekofeminismoaz, elikadura subiranotasunaz eta irudien birpolitizazioari buruz hitz egingo du bertan algortar honek.

- *Erakusketaren izenburua ikustean, zalantzak sortuko zaizkie bisitari gehienei. Zer da agroekofeminismoa?*

Nekazaritza, ekologia eta feminismoa uztartzeko helburua duen mugimendua. Orain arte 3 arlo horiek ez zuten inolako harremanik, baina guk beharrezkoa ikusten dugu hirurak batzea, eta bi norabidetan egiten dugu lan. Alde batetik, elikaduraburujabetza txertatu nahi dugu feminismoan; bestalde, feminismoa txertatu nahi dugu nekazaritzan. Dena den, gure helburu nagusia da elikadura subiranotasuna lortzea –bizitzak eta natura lehenetsiz–, eta produkzioan zentratuta dagoen egungo eredia aldatzea.

- *Eta zer da elikadura subiranotasuna?*

Nola eta zerekin elikatuko garen erabakitzeko ahalmena da. Denok daukagun eskubidea da, eta uste dugu bermatuta dugula, baina ez da egia: agroindustria multinazionalen menpe gaude. Enpresa hauek ez dute elikadura buruan, etekinei ematen diete lehentasuna. Berdin zaie jendeak zer jaten duen, lurra nola dagoen edo nekazariak esplotatuta dauden: dolarrak interesatzen zaizkie. Ez gaitezen engainatu: guk ez daukagu boteririk zer jan nahi dugun aukeratzeko, lau enpresa handiak erabakitzen dute. Ez du-

gu erabakitzen egunero azukre pilo bat jatea, ez dugu erabakitzen sojaren deribatuak jateko Argentinako indigenak desplazatuak izatea, ez dugu erabakitzen hidroponiarekin pozoiitutako ortuariak jatea... Baina horiek dira gure eskura dauden elikagaiak, politika publikoek horiek babesten dituztelako, Europatik hasita eta lokaleraino.

- *Nola lortu daiteke errei-bindikatzen duzuen elikadura burujabetza?*

Helburu politikoa da, eta transbertsala, eta 4 eremu ezberdinetan eragitea eskatzen du: politika publikoetan, nekazaritzan, banaketa-enpresatan eta kontsumitzaileen arloan. Gizarte osoari dagokion gaia da. Instituzioek ez dute pausorik emango, lursail eta ekoizle handiei begira baitaude. Nekazaritza arduratsuaren alde gaudenok sektore honen %3 gara bakarrik, eta zaila da instituzioek guri kasu egitea, baina horretan tematuta gaude. Banaketa-enpresei, zer esanik ez, produkzioa eta euren etekinak bakarrik interesatzen zaizkie.

- *Eta nekazariak zer egin dezakete?*

Nekazarioi dagokigu gure lana modu arduratsuagoan egitea. Gizarteari egiten diogun ekarpena da, mundua hobetzeko eta pertsonak eta lurra zaintzeko: bizirauteko, azken finean.



Etxaldeko Emakumeak. Ezkerretik hasita, lehena, Amets Ladislao.

Baina ez naiz ari bakarrik pestiziden kontuaz. Gaur egun kalitate-zigilu asko daude, baina askotan zigilu horien atzean dauden langileak eta lurrak esplotatuta daude, eta bata zein bestea zaindu behar dira.

- *Zer egin dezakegu kontsumitzaileok?*

Informatuta egon. Kontsumitzaileak oso despistatuta gaude, eta normala da, gu nahasteko kanpainak egiten direlako. Gaur egun banaketa-enpresek gurea bezalako elkarteoi lapurtutako hitzak eta leloak erabiltzen dituzte: dena da naturala, ekologikoa, 0 kilometrokoa... Baina gezurra da, gehiago saltzeko erabiltzen duten estrategia da. Esnea, adibidez. Zero kilometrokoa izan daiteke, baina 400 behi korta batean sartuta badaude eta Argentinatik ekarritako sojadun pentsuarekin hazita... guretzat hori ez da balekoa. Lokala da, bai, oso ondo, baina haratago joan behar gara.

- *Eta nola jokatu dezakegu horren aurrean?*

Badakit zaila dela, guztiok gaudelako oso lanpetuta eta gure elikaduraren garrantzia bigarren plano baten dagoelako. Askotan gure denbora falta edo erosotasuna lehenesten dugu, eta egia da ez dela gure errua, sistema honen ez digulako laguntzen. Baina gure errua ez den arren, bada gure ardura. Ahal den neurrian saiatu beharke ginateke sasoian sa-soiko produktuak erosten, gertuko nekazariak ekoiztakoak eta, ahal dela, ekologikoak. Aukeratu ahalko bagenu, konbentzituta nago denok aukeratuko genituzkeela elikagai osasuntsuak, esplotazioan oinarritzen ez direnak, hurbilekoak (CO2 gutxiago sortzeko)...

- *Zuen elkarteak burutzen dituen proiektuetan, zer dauka pisu handiagoa: nekazaritzak, ekologiak edo feminismoak?*

Beno, pertsona bakoitzak atal bat lehenesten du. Niretzako nekazaritza da garrantzitsuen, landa-eremutik natorrelako. Agian, eremu feministatik datorren

“Gizarteak bigarren planoan utzi du elikaduraren garrantzia”



Drogeteniituri, 282 zk.

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

batentzako garrantzitsuagoa da feminismoa. Talde anitza gara.

- Nortzuk osatzen duzue bada Etxaldeko Emakumeak?

Esan bezala, emakume anitzek osatzen dugu. Batzuk landa-eremutik etorritakoak gara, eta beste batzuk feminisotik, baina guztiok dugu helburu bera: elikadura subiranotasuna. Elkarte irekia da, eta esanenezake 14 bat lagunek

osatzen dugula talde iraunkorra. Bizkaitarrak gara gehienak, lan boluntarioa egiten dugu, eta dinamizatzaile bat dugu. Gainera, beste elkarte batzuekin aliantzak bilatzen saiatzen gara. Izan ere, Hegoamerika eta Europako beste herrialde batzuetan ere badaude horrelako taldeak, eta La Vía Campesinako kideak gara (nekazaritza jasagarria eta elikadura-subiranotasunaren aldeko elkartea).

- Zer dela-eta eratu zen taldea?

Nik uste dut hasieran gure espazioaren bila geundela bakarrik. Emakumeok lan handia egin izan dugu betidanik baserrietan, baina lan hori ez da sekula kontuan hartu, zaintza lanarekin gertatzen den bezala, eta berau azaleratzeko nahia bazegoen, emakumeok ere lehen sektore horretako zati garela erakutsi. Taldeak hausnarke eta kokapen prozesua egin eta gero, gure diskurtsoa jantzi eta berau zabaltzen hasi gara. Eta egia esan, harrituta gaude gai honek pizten duen interesarekin.

- Zabalkunde prozesu horren zatia da Ermuan egiten ari zareten erakusketa, Agroekofeminismoa: antolatu, landatu eta gozatu!?

Bai. Kontua da urtero egutegi bat kaleratzen dugula, eta aurtengoa Ermuko Emakumearen Topalekura heldu zen. Berritasun Teknikaria den Begoña Fernándezek gurekin jarri zen harremanetan, eta proposatu zigun egutegia erakusketatik bihurtzea. Ez geneukan horretarako baliabide ekonomikorik, eta Ermuko Udalaren laguntzarekin burutu dugu. Badakigu beste Udal batzuk ere nahi dutela gure irudiak erakutsi, eta pozik gaude.

- Zer ikusi daiteke bertan?

Hamabi irudiz osatutako erakusketa da. Oso irudi eza-gunak dira (Frida Khaloren bat, Beatlesen disko baten portada...), baina birpolitizatu egin nahi izan ditugu, beste zentzu bat eman. Hau da, nekazaritza eta feminismoaren ikuspuntua eman, gure begietatik ikusi. Oso argazki politak daude, eta horretan asko lagundu digu Ana Martin argazkilariak.

- Erakusketako argazki bakoitzak testu bat du ondoan, eta horietako batean irakurri daiteke baserrira itzultzea (recampesinización) berbak. Zer esan nahi du? Gure gizartea baserrira bueltatzen ari da?

Uste dut gaur egun bada-goela joera txiki bat baserrira joateko. Lehen, aldiz, baserriarrek gurasoengandik jasotzen zituzten baserriak, animaliak eta ortuak. Baserrira doan jendearentzat oso zaila da zerotik hasia, eta gure elkarteak horiei bidea egiten laguntzen die. Ni neu duela 20 urte inguru joan nintzen baserrira, Errigoitin, eta azken 8ak behiak, ardiak eta txerriak hazten ari naiz.

Dorleta Vidal



Argazkia: Ana Martin.

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

ARTS
EREGEN

Gosariak, pintxoak, afariak

Egunero zabalik
8:00etatik aurrera

San Pelaio zeharbidea 4
608 736 900

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Mallabiko eraikin esanguratsuenak:

Arandoñoigoiti baserria (IV)

Kontserbatzen dituen ia 500 urte atzeragoko jatorrizko elementu arkitektonikoengatik, babestu behar den ondare bezala inbentariatu zen 1997an eta 2008 urtea geroztik, Monumentu izendapena du sagardotegia izandako baserrietxe honek.

Eraikitze data: eraikin nagusia XVI. mendekoa da, haren ondoko garai edo lastategia 200 urte beranduagokoa eta XIX. mendekoa, oster, baserriak josten-josten erantsita duen eraikina. Etxe nagusiaren eta bere ingurumariaren azken berritze lanak 2011n amaitu ziren.

Kokapena: Arandoño auzoan, Hanbreko Eguzki-Alde jatetxe osteko bidearen amaieran dago, azken eta goren go, hortik Goitti izena.

Ezaugarri arkitektonikoak: oin karra-tuko isuri biko baserria, familia bakarrekoa. Etxe kontran beste eraikin txikiagoa du, isuri biko teilatu mota berdinarekin estalia. Sarreran hareharrizko harlandu handiekin osatutako erdi-puntuko arku batek ematen digu ongi-etorria; deigarriak dira honen erdi-erdiko gailu-



Erdi-puntuko arku eta haren gaineko gurutze latindarra eta gezi-leiho.

rrean erliebean landutako gurutze latindarra, bere peanatoa eta guzti, eta arku gaineko eta honen ondoko gezi-leiho edo aspillera pare, kanpokoengandik babeste asmoz-edo gezi edo fusil puntak ateratzeko. Ur-bedeinkatu ontzia ere izan zuen etxeak sarreran. Barruan, eraikinaren egurrezko egitura bistan utzi da azken berriztapenen ostetik: harlanduzko euskarrietan bermatutako arbola-tantai bakarreko bost zutabe mardulek osatzen dute, lurzorutik ia etxe gailurrera artekoak, sagarra txikitu eta sagardoa egiteko dolare edo prentsa erraldoi baten aztarna direnak.

Jabegoa: 1704ko Bizkaiko Fogerazio-etan (orduko errolda moduko bat) Juan de Arandoñoigoitya da bertako nagusia, XIX. mende erdian Jose Nicolas Aguinagaren izena agertzen zaigu, alkate eta Gernikan Batzarkide edo Junteroa izandakoa, eta honen oinordekoak dira gaur eguneko etxe-jabeak.

Monumentu izendapena: 1997koa da eraikinaren lehen azterketa arkitektonikoa, balio arkeologikoa izan leza-keela deklaratu. 2008ko otsailaren 27ko datarekin Monumentu izendatu eta Euskal Ondare Kulturalaren zerrendan sartzen da. Eraikin multzoaz batera, inguruko lurra eta baserrirako sarbidea ere babestuko dira.

Bitxikeriak: sagarra txikitu eta zalpazteko dolare gisa jaiotako baserria abere zaintzarako ailegatu da milurteko honetara, sagarren jatorrizko lekuaz behi eta txahalak jabetuz. Kortan, be-



Arandoñoigoiti. Ahozkotasunean Aniñoigoiti.

larra edo pentsuaren egurrezko asketan, etxe alabak klarionarekin idazten zituen ganaduon izenak: Txixixe, Txata, Urko...

Idatzizko testigantzarik egon ez arren, ahozko tradizioak dio sagardotegia izan aurretik Donejakue bideko ospitala izan zela.

Etxe ostean, adreilu gorritz biribildutako labea eta arropa beratzeko harrizko askatxoa kontserbatzen dira. Linu landarak beratu ahal izateko bere linu-potzu propioa ere izandakoa da etxea.

Estibalitz González



Barru aldean, jatorrizko zutabeak.





ZERMİK

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMİK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

URRIKO JAIETAKO EGITARUA

Urriaren 24a, osteguna

16:30 Hitzaldia: Depresioa eta gaixotasun afektiboak. Kontzejuzarrear.

Urriaren 25a, ostirala

16:30 Merendola eta tailerrak umeentzat eskolan.
17:00 Buruhandiak eskolako frontoian.
18:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik.
19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean.
19:00 Errebal dantzaldi gidatua parkean.
20:30 Oilasko pintxoak parkean. Tikitak: 1,50€.
21:00 INGOT eta EZ3 taldea, parkean.
23:00 Mugi panderoa erromeria taldea parkean.
01:00 DJ Ander, plazan.

Urriaren 26a, larunbata

9:00 Nesken frontenis txapelketa herriko frontoian.
12:00-15:00 Mallabiko IV. Arda Ferixie probalekuan. Sarrera: 7€.
Pintxoak salgai, Mallabiko tabernariak eginda.
15:00 Herri bazkari autogestionatua elizpean.
17:00 Birziklatze jolasak umeentzat parkeko aterpe berrian.
18:00 Kale animazioa Dunbots txarangarekin.
22:30 Rock kontzertua parkean: Nogen eta Kaotiko. Ondoren Txurru plazan.

GAUXORI ZERBITZUA EGONGO DA URRIKO JAIETAN

Urriko jaiak direla-eta, Gautxori zerbitzua Mallabiraino luzatuko du Euskotrenek urriaren 26an, larunbata. Horri esker, autobus zerbitzua egongo da Mallabia eta Ondarru artean gau guztian, eta Ermua, Eibar, Elgoibar, Altzola, Mendaro, Deba eta Mutrikutik igaroko dira autobusok. Mallabitik irteerak ordu hauetan izango dira: 23:00, 00:40, 2:40, 2:40 (ordua aldatu eta gero), 4:40, 5:40 eta 6:40. Ondarrutik, aldiz, ordu hauetan irtengo dira: 21:20, 22:10, 23:15, 23:45, 1:45, 2:45, 3:45 (ordua aldatu eta gero) eta 5:45.

Urriaren 27a, igandea

11:00 Umeen futbito partiduak eskolako frontoian.
16:30 Antzerkia: Futbolariak eta printzesak umeentzat Kontzejuzarrear. Ondoren txokolatada.
17:00 Mus txapelketa probalekuan. Sariak:
1. saria: 120€ eta garaikurra
2. saria: 100€
3. saria: 80€
4. saria: 60€
Izena ematea: 10€ bikoteko.

Azaroaren 1a, ostirala

12:30 Nesken gomazko paleta zirkuitua herriko frontoian.

Azaroaren 2a, larunbata

17:30 "Zelai"ri omenaldia eta herri kirolen erakustaldia herriko frontoian.

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

Gazte Alai, 50 urte dantzan

Santos Aranburu eta Mari Karmen Amutxastegi gaztetxoak ziren Gazte Alai dantza taldea sortu zenean, 1969an. 50 urte igaro dira ordutik eta taldea, gorabeherak izan dituen arren, gaur egun bizirik eta gogotsu dago. Andra Mari jaietako txupina jaurti zuten Santos eta Mari Karmenekin, eta taldeko egungo zuzendaritzan dauden Idurre Galarraga eta Iker Iriondorekin Gazte Alairen iragana eta orainaren berri jaso dugu.

Mallabiko lehen dantza taldea duela 85 urte sortu omen zen (1934an), Emilio Praderaren aitaren eskutik. Talde hura desagertu zen arren, hazi horretatik jaioko zen geroago Gazte Alai dantza taldea, Santos eta Mari Karmenen esanetan. 1969. urtea zen, eta Justo Azagirre eta Emilio Txurruka mallabitarrek ohitura zaharrak berreskuratzeko asmoz taldetxo osatzen hasita zeuden (Olentzero, Santa Ageda...), eta euskal dantzei ekitea ere euren nahien artean zegoen. Gazte Alai sortu, eta urte horretan bertan, Arantzazutik Mallabi-

ra etorritako fraide bati esker estreinatu zen mutilen taldea elizpean, Garizuma bete-betean. Handik gutxira nesken taldea ere sortuko zen, eta Mari Karmen Amutxastegi bertan egon zen.

Joseba Idigoras ermuarrak gidatzen zituen lehen entsegu haiek, larunbatero, plaza ondoko lonja batean, eta Santos eta Mari Karmenen ustetan, aitzakia polita zen hura herriko neska eta mutilak elkartu eta giro onean egoteko. Emilio Txurruka eta Eloi Zelaieta mallabitarrek zuten txistu eta danbolinaren ardura, eta haien musikaz lagunduta herriko ermita guztietara joaten ziren Gazte Alaiakoak dantzan egitera, hala nola inguruko herrietara ere. Santosek eta Mari Karmenek diotenez, “beste garai batzuk ziren, eta joan-etorria oinez egin behar izaten genuen: abarkak biderako eta abarketak dantzarako”.

Oinak ondo jantzita eramatea ezinbestekoa zen



dantzarako, baina arropak ere berebiziko garrantzia zuten, eta dantzari bakoitzak bere jantziak egin behar zituen. Dantza ezberdinetan erabiltzen zen material gehiena desagertutako lehen talde horretatik jaso zuten oinordean (txilinak eta ezpatak, esaterako), eta gainerako makilak eta arkuak taldeko kide guztien artean erosi ziren. Egiten zituzten irteera guztietan, 1934an egindako bandera ederra erakusten zuten. “Mallabiko ezpatadantziariak” jartzen zuena, eskuz josia, eta Maria Arregi “sarkristanak” ondo gordeta zuena gerra osteko garaietatik.

Etena eta aldaketak

Urteen joan-etorriekin edo, bandera hura galtzearen pena du Santosek, eta taldeak beste bat erabiltzen hasi zen, galdutakoaren

erreplika. Baina ez da bandera aldatu den gauza bakarra, taldeak hainbat gorabehera izan baititu 50 urte hauetan. “Hasierako taldetxo osatu genuenok sei bat urte egongo ginen dantzan-dio Santosek-, eta gero eten bat egin zen”. 80. hamarkadan berriro ekin zitzaien musikaren erritmora oinak mugitzeari Mallabian, eta taldeak Hesparru izena hartu zuen, 1994an inskribatua, Idurrek azaldu duenez. Momentu hartan Eibarko Kezka taldeko dantzariak etorri ziren mallabitarrei laguntzera eta bultzada ematera. Eta handik gutxira, aipatutako ikurraren erreplika erabiltzen hasi ziren, eta erabaki zuten berriro Gazte Alai izena berreskuratzea, 2011 urtean.

Gaur egun 23 ume daude taldean, eta neska-mutil hauek auzorik auzo joaten dira oraindik ere jaietan dantzan egitera. Herriko



RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

egitasmu ezberdinetan parte hartzen dute, hala nola inguruko herrietako Euskal Jaietan. Musikaz arduratzen dena Estibalitz Katarain da, gaur egungo txistua eta danbolina jotzen dituen, eta berak ezin duenean, Ermuko Txindurri Dantza eta Txistu taldeko bi musikariren laguntza izaten dute.

Gaszte Alaik iragana, oraina eta etorkizuna ere badu. Izan ere, nagusien taldea sortzeko bidean dago egungo zuzendaritza, 16 urtetik gorakoei zuzenduta. “Orain arte eskolaz kanpoko ekintzat hartu izan da taldea

—dio Ikerrek—, eta 12 urterekin ume gehienek laga egiten zuten. Orain jarraipena eman nahi diogu”. Horretarako deialdia zabaldu dute herrian, eta izena eman nahi dutenek bi baldintza bete beharko dituzte: 16 urtetik gorako mallabitarra izatea eta dantzarako zaletasuna izatea. Interesatuak Liburutegian eman beharko dute izena urriaren 31 baino lehen. Ikerrek eta Idurrek argitu dutenez, entsegu egunak eta orduak izena ematen dutenen artean adostuko dira.

Dorleta Vidal



Iragana eta oraina bat eginda

Taldearen 50 urterena aitzakiatzat hartuta, Santos Aranburu eta Mari Karmen Amutxastegi dantzari ohiak aukeratu zituen Mallabiko Udalak aurtengo Andra Mari jaietako txupina jaurtitzeko. Eta hauek onartu. “Ez genuen inondik inora ere espero, baina ilusio handia egin zigun”, diote biek. Egun horretan, duela 50 urte dantzan hasten ari ziren gaztetxo horiek bezala, urduri-urduri eginda, udaletxeko balkoira igo, hitz batzuk irakurri, eta sua eman zioten txupinari. “Hasierako taldea osatzen genuenok berriro elkartzeko aukera izan genuen. Batzuk kanpoan bizi dira aspaldi, eta oso polita izan zen denok elkar ikustea”, diote biek. Txupina bota aurretik, lehengo dantzari horiek eta gaur egungo taldea osatzen duten neska-mutikoak elkartu, eta Agintariena dantza zutuen elkarrekin.



LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

%100 Subentzionatuak

70 ikastaro baino gehiago webgunean: **AUKERATU ZUREA!**



IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
Planoen interpretazioa III. Multzoak	25	2019/11/04	SIEMENS OPERATE fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2020/01/07
SOLID EDGE II. Multzoak	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
SOLIDWORKS II. Multzoak	30	2019/11/25	Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak Makinan	16	2019/11/04
NX gainazalak	30	2019/12/02	Hidraulika	24	2019/11/04
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/04
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko Makina)	20	2019/11/04	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	70	2019/11/11
SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: lagundutako programazioa SHOPMILL	20	2019/11/04	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1. maila	40	2019/11/11
SIEMENS Fresaketa: prestaketa eta erabilera	35	2019/11/04	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
FANUC fresatzeko makina: prestatzea eta erabiltzea	35	2019/11/04	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
Ohiko fresagailua	80	2019/11/06	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
SIEMENS: programazio parametrikoa	15	2019/12/02	Neumatika	24	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2019/12/09	Mekanizatutako produktua egiaztatzea	30	2019/11/04
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	Kalibrazio plana	16	2019/11/18

San Martin Azoka

Azaroaren 9an Egitaraua orduz ordu

11:00etan azoka jendearentzat zabalduko da plazan:

- Kalejira Urkabustaizko joaldunekin.
- Kalejira Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.
- Kulkiren umeentzako jolasak eta ikastetxeetako postuak

San Martin plazan.

- Ehun buruko artaldea eta astoen jaietsiera Errekaldetik Valdespinara.

- Belar meta eta abere eta hegazti erakusketa Valdespinan.
- Idi pareta Probalekun.
- Artisauen postuak Santiago plazan eta Valdespina parkean.

11:00-14:00

- Ze pisu du aurtengo kalabazak? Apustua 1€. Saria, jasotakoaren %70. Pisua 14:00etan argituko da. Errifak kalean salgai.

12:00

- Jantzien argazki lehiaketa 18:00ak arte. Argazkian agertu beharrekoa: pertsona edo talde bat baserritar jantziarekin. Igo argazkia @euskalbirusa #euskalbirusa. Saria: afaltzeko 100€tako txeketa.

12:30

- Euskal dantzak plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

13:00

- Herri kirolak Izelaietan.

13:30

- Sari banaketa: oholtza gainean, erakusleihen lehiaketakoak; norbere postuetan, azoka gunekoak.

15:30

- Babajana Jator kiroldegiko kantxan: 16€ (babak, odolostea, txorixoa, saiheskia, postrea, eta kafea). Tiketak salgai Erdikokale 2-1 edo - 688 63 28 74 telefonoan.

18:00

- Erromeria Luhartz taldearekin Kardinal Orbe plazan. Erromeria 00:00ak arte luzatuko da.

19:00

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

- Errifa zozketa, eta argazki lehiaketen ebazpena plazan.

19:30

- Larrain-dantza.

Euskal Birusak erakusleihen lehiaketa antolatu du

San Martin Azoka girotzeko asmoz, erakusleihen lehiaketa antolatu du aurten ere Euskal Birusa elkarteak. Eskaparateak apaintzeko, nekazaritza,

abeltzaintza eta baserri giroko tresna eta jantziak erabil daitezke: azokarekin harremana duten elementuak, alegia.

Azaroaren 8an jakinaraziko dira irabazleen izenak, eta azoka egunean garaikurra jasoko dute.



San Martin Kulturala

Azaroaren 5ean

Nagusientzako talo ikastaroa Malengo elkarteak, 19:00etan. Izena emateko 688632874 telefonora deitu beharko da, plaza mugatuak. 2€.

Azaroaren 7an

Gazta dastaketa Lurpe elkarteak. Izena emateko 688632874 telefonora deitu beharko da, plaza mugatuak. Doan.

Azaroaren 10ean

Umeentzako zine-emanaldia Ermua Antzokian. Zehaztu gabeko filmea. 20:30ean.

Azaroaren 11n

Gaztañerre eguna. Afari-merienda autogestionatua, 19:30etik aurrera Merkatu Plazan. Edariak eta gaztainak doan. Afalostean dantza solteak eta musika izango dira. 23:00etan bukatuko da.

Azaroaren 15ean

Bertso jaialdia: Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Julio Soto eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Ermua Antzokian, 22:15ean. Sarrera: 10€.

Azaroaren 22an

Santa Zezilia jaialdia. Alboka Musika Eskola eta Txindurri Dantza Taldea. 22:15ean Ermua Antzokian. Sarrera, 3€.

Azaroaren 29an

Antzerkia: "Lur", Xake taldearen eskutik. 20:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€.

**Hanigan's
Irish Tavern**

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

Bitsi-denda Tailor proopia Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Juan Valdubiecok 100. maratonia burutu du

Logroñon korritu zuen ermuarrak berarentzat erabat esanguratsua zen lasterketa: ehungarrena! Giro bero eta sargoritsuak laga ez zion arren behar beste gozaten, pozik amaitu zuen Aixola Maratoi taldeko kide honek. Azaroaren 24an beste berotasun mota bat jasoko du, taldekide eta lagunek Donostian egingo dioten omenaldian. Eta nola ospatu hobeto bere ondoan korrituz baino? Ilusio handiarekin ere begiratzen dio haren aurretik, azaroaren 10ean, Greziara egingo duen eskapatatxoari, Marathon eta Athenas arteko 42 km. mitikoak korritzeko asmoz. 20 urtez, maratonia maratoi ibili ondoren, 63 urterekin sasoiko dago Juan Valdubieco, "Tximista": eguneroko entrenamenduetan ia kale egin barik, aurten 8 maratointan hartu du parte beteranoen mailan Espainiako Txapeldunorde izandako korrikalari honek.

Berbalagunek izena emateko epea zabaldu du



Ermua eta Mallabiko Berbalagun taldeetan parte hartu nahi dutenek modu berezian eman beharko dute aurten izena. "Euskaraz hitz egitea oparia da. Oparitu euskara" leloa duen kanpaina ipini dute martxan egitasmo honetako arduradunek. "Herritarrei protagonismo handiagoa eman nahi diegu, eta haien esku ere laga nahi izan dugu jendeak izena ematearen erantzukizuna", adierazi dute. Horretarako opari-kita prestatu dute, eta bai Berbalaguneko kide berriek bai talderen batean parte hartu dezaketen lagunek ere agenda bat jasoko dute. Opari-kita Ermuko euskaltegietan zein Mallabiko liburutegian jaso dezake kide bat kontzertitzeko saiakera egingo duen pertsona horrek. Pertsona hori proiektuaren parte izan ahal da, edo ez.

ANGEL ZELAIETA MALLABITARRA ARGIAREN 100. URTEURRENEAN



Argia aldizkariak 100 urte bete ditu aurten, eta euren historiaren zati izan diren pertsonen gaineko hainbat testu kaleratzen dihardute. Horietako artikulua batek Angel Zelaieta mallabitarren ibilbidea jasotzen du, *Bizitza kazetaritzari emana* izenburupean. Miren Osak idatzitako testuan, Angelek *Zeruko Argia* aldizkarian eman zituen lehen urratsen gainekoak irakur daitezke. 1969 eta 1972 urteen bitartean *Anaitasuna* aldizkari zuzendaria izan zen Zelaieta.

udagoieneko ostera

Uzta berriak ostera Bizkaiko udagoiengan

<p>SONAKAY + IKER LAUROBA BILBO BBK aretoa urriak 26 20:00 sarrera: 10/12 €</p>	<p>ANNE ETCHEGOYEN & LES NOUVELLES VOIX BASQUES BERRIZ Kultur etxea urriak 26 20:00 sarrera: 8/10 €</p>	<p>AGUR ETA DOLORE ANTZERKIA-SOLASALDIA PLENTZIA Danontzat Gaztelxea azaroak 9 20:00 sarrera: 3 €</p>	<p>HUNTZA GETXO Muxikebarri Antzokia Arrigunaga aretoa azaroak 15 22:00 sarrera: 8 €</p>
<p>OLATZ SALVADOR + XABI BANDINI BILBO Kafe Antzokia azaroak 28 22:00 sarrera: 10/12 €</p>			

ANTOLATZAILEA:

BABELEA:

LAGUNTZAILEAK:

berria

Dela

SARRERAK:

HAZINNOVA ZERBITZUA AURKEZTU ZAIE DEBABARRENEKO ETEI



Urriaren 18an SPRI Taldeak eta Innobasquek, Berrikuntzako Euskal Agentziak, Hazinnova zerbitzua ezagutzera eman zieten Debabarrena eta Debagoieneko ETEi (enpresa txiki eta ertainei, alegia). Zerbitzu honen helburua da lana antolatzeko modu berriztatzaileak eta produktu zein zerbitzuak merkaturatzeko molde berriak baliatzeko aukera ematea. Horretarako ekimen horretan parte hartzen duten enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako proiektuak onduko dira. Aurkezpenean parte hartu zuten SPRI Taldeko Berrikuntza Saileko zuzendari Josu Ocarizek, Innobasqueko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Politiken zuzendari Alaitz Landaluzek, Debegesako zuzendari orokor Juan Ángel Balbásek eta Manufacturas Resort enpresako gerentea den Miguel Ángel Arenasek.

Alboka Musika Eskolak 25 urte bete ditu

Urteurrenari jai eta musika usaina eman nahi diote Albokako arduradunek eta Santa Zezilia eguna eta haren hurrengoa aukeratu dute horretarako: azaroaren 22an, ostirala, ohiko emanaldia egingo dute Txindurri Dantza eta Txistu taldearekin batera, Ermua Antzokian 22:15ean. Hurrengo egunean, bazkalarrean, musikaz girotutako kalejira, eta bazkaria gero, 14:30ean Merkatu Plazan ikasle, ikasle ohi, hauen guraso, irakasle eta irakasle izandakoak batzeko asmoz. Bazkarirako txartelak salgai daude Musika Eskolan, 12€ helduak eta 8€ umeak.



Nagusilan Debabarrenak jasoko du aurten Gure Balioak saria

Nagusilan Eibar, Elgoibar, Ermua, Soraluze, Mutriku eta Debako elkarteek Debegesa Garapen Agentziak sortutako Gure Balioak Saria jasoko dute aurten, "bakartasun-egoeran dauden adineko pertsonekin egiten duten lan boluntarioagatik". Epaimahaiak boluntarioen solidaritatea, eskuzabaltasuna, konpromiso soziala eta parte hartzea nabarmendu ditu. Nagusilan Debabarrenak 20 urte baino gehiago daramatza lanean, eta gaur egun 300 adineko pertsonengana iristen da, gehien bat eguneko zentro eta zaharren egoitzetan. Beraien jardunen artean daude txangoak antolatzea, mahai-jokoetan parte hartzea, administrazio agiriak kudeatzen laguntzea, bingoan jolastea eta ezin duenari irakurtzen laguntzea, besteak beste. Sari banaketa azaroaren 14an burutuko da, Eibarko Koliseo antzokian (19:00etatik aurrera), eta ekitaldiak DanobatGroup enpresaren laguntza jasoko du. Sarrera doakoa da eta nahi duten herritar guztiak gerturatu daitezke bertaraino. Debegesa Garapen Agentziaren ekimenez sortu zen Gure Balioak Saria 2010ean. Sari honen helburua da gizarte balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo elkarte publikoki aitortzea eta kontuan izaten ditu ekintzailtza, lankidetzeta, errespetua eta integritatea.



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel.: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



DG Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
**KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK** ere
egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak

PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

Ermua BHIko DBHko lehen mailakoak Arratera

Irailaren 20an, ostirala, Arratera abiatu ginen lehen mailako ikasleok goiz ederra igarotzeko asmoz. Kurtso hasieran elkar ezagutzeko egiten den irteera da, lehen maila honetan ikastetxe desberdinetatik gatozen ikasleok elkartzen gara-eta. 9ak aldera autobusetara igo eta konturatu orduko bertaraino dauden kilometro gutxiak janda genituen eta Arraten ginen.

Bertan, Antxintxinketako begiraleak zai genituen, eurak izango zirelako egingo genituen ekintzen arduradunak.

Ekintza desberdinak egin genituen, batzuk beste batzuk baino erakargarriagoak, baina oso gustura aritu ginen. Hamarretakoa jateko denbora ere izan genuen. Gainera eguraldi zoragarria izan genuen.

Datorren urtean beste ikasle batzuk joango dira, baina guk gustura errepikatuko genuke ekintza hau.

Ermua BHIko DBHko lehen mailako ikasleak



Ermua BHIko Batxilergoko lehen mailakoak surf egitera joan ziren

Irailaren 23an, trena hartu eta Zaurutza abiatu ginen surf ikastaroa egitera. Eguraldi oso ona izan ez bagenuen ere, ez genuen arazorik izan ki-

rol hau praktikatzeko. Neopreno jantzietan sartu eta, hasieran, lehorrean aritu ginen monitoreen azalpenak eta aholkuak entzunez eta, noski, kasu egi-

nez. Baina irrikitan geunden uretan sartu eta taula ganean metro gutxi batzuk baziren ere irristatzeko.

Denetarik ikus zitekeen: eskarmentu handia zuten ikaskideak eta luzaro irauten zutenak taula ganean; eta lehen aldia zutenak eta taula zapaldu orduko jausten zirenak. Barre algarak entzutekoak ziren!!!!

Ermua BHIko Batxilergokoko lehen mailako ikasleak



Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**




San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00





943 170474 688819336

**Dejate
QUERER**
BERRIA ERMUA



GORETTI GERRIKABEITIA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oso oroitzapen onak ditut. Zoriontsu bizi ginen, base-rritik irten barik. Eibarrera joan ginen gero ikastera, eta astebururen batean ezin baginen baserrira bueltatu pena handia hartzen genuen!

- Eta gaztaroa?

Ondo ere. Kuadrila ederra genuen!

- Zer irakatsi zizuten gurasoek?

Etxean esaten ziguten besteak errespetatzen jakin behar genuela, eta gu ere errespetatutak izango gine-la.

- Non ezagutu zenuen gizona?

Gernikako dantzaleku batean.

- Ikasteko aukera izan zenuen?

Bai, diplomatura bat daukat, baina ez dut horretan inoiz lan egin. Askatasuna nahi nuen, eta aitak baserrian oiloak ipini zituenean bertan hasi nintzen, afizioagatik. Guztiontzako zegoen lana, eta ni kanpora irteten hasi nintzen, arrautzak saltzera. Jendearekin harremana izatea asko estimatzen dut.

- Zenbat urte arrautzak saltzen?

50 bat. Eibarko plazan hasieran, Ermuan gero: Merkatu Plazan, tabernetan, dendetan... Azken urteetan Gernikan eta Markinan ere ibili naiz.

- Nola hartu zintuzten Ermuan?



Ziortza Bolibarren jaio zen duela 65 urte. Zornotzara ezkondu zen, 30 urte eman zituen bertan eta jaioterrira itzuli gero. Bost neba-arreben artean, bigarrena da. Bi seme-alaba dauzka. 50 urte inguru egin ditu Ermuan arrautzak saltzen, eta irailean erretiroa hartzeko sasoa heldu zitzaion.

Oso ondo onartuta izan naiz, eta oso gustura ibili naiz.

- Irailaren bukaeran erretiratu zinen. Pena hartu duzu?

Ez. Nire lana oso gustura egin dut beti, eta uste nuen pena emango zidala, baina azken urteak luze egin zaizkit, ordua noiz heltzeko zain nengoen. Hala ere, lagun pilo-pilo bat geratu zaizkit bertan. Azken egunean besarkada

mordoa jaso nituen, adineko jendearenak asko eta asko.

- Eta hemendik aurrera zer?

Trankil-trankil bizitzeko asmoa daukat. Asko gustatzen zait ibiltzea eta igerilekura joatea. Arratsaldean ilobak zaintzen ditut. Poztasunez betetzen naute!

- Kuadrilan ibiltzekoa zara?

Ahizpa batekin urtebeteko aldea daukat, eta harekin

eta senarrekin ibiltzen gara askotan.

- Bidaiatzeko afizioa duzu?

Ez, asko bidaiatu dut, baina orain ez nau batere erakartzen. Leku ederrean bizi gara!

- Zinea, irratia, telebista?

Irratia asko gustatzen zait. Telebista, zero!

- Irakurtzea duzu gustuko?

Bai, lo gutxi egiten dut gauetan eta liburuek asko laguntzen didate. Irakurri dudana azkena Isabel Allendek idatzitakoa da. Liburu pilo bat ditut ebokan.

- Gauetan lo gutxi, egunez?

Niretzat siesta egitea da munduko plazerik handiena. Ohean egiten dut, ondo tapatuta. Kanpora bazkaltzera bagoaz ere, nire ordu laurdena egin behar dut!

- Jateko plater bat aukeratzekotan?

Indabak eta barazkiak oro har, lekak batez ere. Pasta aldiz, batere ez.

- Bizitzako egunik zoriontsuena?

Lehen semea jaio zenean.

- Zerk eragiten dizu barrea?

Nire bi ilobek. Familian egotea gozamina da!

- Eta zerk jartzen zaitu sutan?

Faltsukeriak. Eta ezin ditut jasan besteek buruz beti gaizki esaten dabiltzanak.


- Erraz haserretzen zara?

Ez, ernegatuta banago, igual arinago; baina ez, lasaia naiz.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Jon Zalduegi, Mallabiko pilota eta pala entrenatzailea:

“Umeentzako urte positiboa izatea nahi dut”

Mallabiko frontoian herriko seme batek du berriro ere gazte eta helduen prestaketaren ardura, palan zein pilotan. Jon Zalduegik (Mallabia, 1996) pozik hartu du entrenatzaile kargua.

- Bertan ikasi zenuen pilotan jokatzeko txikitik; orain, leku berean, zu zara hurrengo belaunaldiari erakusten dabilazana...

Bai, 17 urte bete arte pilotan aritu nintzen, baina laga behar izan nuen. Eskueztatik beti txarto ibili naiz, eta minagatik utzi nuen. Futboleari hasi nintzen gero. Nire garaian Mikel Garcia mallabitarra zen pilotako entrenatzailea.

- Eta harrezgeroztik kanpoko entrenatzaileak beti Mallabiko frontoian?

Mikelek laga zuenean, Xabat Uzuriaga hasi zen, mallabitarra baita. Baina ostean, azken bizpahiru urteetan, Leire Etxaniz markinarra egon da.

- Nolatan heldu zitzaizun proposamena?

Osaba pilotako koordinatzailea da, eta berak esan zidan entrenatzaile baten bila zebiltzala. Aitor Elordiri galdetu zioten, baina ezin, oso lanpetuta dabilelako. Eta niri proposatu zidan.

- Pozik hartu duzu kargua?

Bai, erronka bezala hartu

dut. Ume askorekin nago eta ea zerbait ikasten duten! Batzuk gainera berriak dira, eta orain arte ez dute izan kontakturik pala edo pilotarekin. Nire helburua da umeek disfrutatzea, ikastea, euren artean errespetua bezalako baloreak ikastea, eta urtea aprobetxatzea. Eurentzat urte positiboa izatea.

- Zenbat ikasle dituzu?

Pilotan 18 ume daude, tartean 4 ermuar, eta palan 14. 6 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoak dira. Horrez gain, nagusien taldea ere badago, 11 emakumek osatutakoa.

- Umeekin eta helduekin egiten dituzun entrenamenduak ezberdinak dira?

Bai, apurtxo bat bai. Umei erakusten ahalegintzen naiz, irakasten, eta ariketak errepikakorrak izaten dira. Helduen helburua esango nuke ikasteaz gain, kirol apur bat egitea dela batik bat.

- Lehen baino neska gehiago dago gaur egun frontoian?



Nire garaian neska bakarra zegoen pilotan, baina orain pilo bat daude eta oso ondo aritzen dira. Eskolako jolas-orduan ere, beti pilotaren ibiltzen dira eta igartzen da. Hala ere, pala nahiago ohi dute.

- Entrenatzaile bezala denbora gutxi daramazun arren, nabari duzu umeren batek maila bereziki ona duela?

Bai, neska bat daukat palan oso ondo jokatzeko duena, eta pilotan 8 urteko mutikoa daukat oso-oso ona dena. Berezkoa dauka pilota nola jo, eta indar handia dauka.

- Duela urte batzuk pilotak gorakada izan zuen, eta

zaletasun handia sortu zen. Nolako da gaur egungo egoera?

Nire garaian afizio handia zegoen, eta bizitza osoa frontoian sartuta egon gara, baina gure belaunaldiarekin bukatu zen. Azken urteetan Mallabiko frontoia nahiko hutsik egon da. Ermuko jendea ibiltzen zen batez ere. Baina ez nuke esango Mallabiko kontua bakarrik denik, Durangoko taldea ere, esaterako, desagertu da. Aurten, zorionez, ume pilo batek eman du izena ikastaroetan, eta hori pozteko modukoa da.

Dorleta Vidal

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Andoni eta biok

Gauza asko egin dut uda honetan: atsedean hartu, bidaia pare bat, irakurri, idatzi... Kirola ere egin dut, eta, eguraldia lagun izan dugunean, hondartzara joan naiz.

Eta maitemindu naiz. Udaren hasieran gizon batez maitemindu nintzen. Bat-batekoa izan zen, ustekabekoa. Andoni du izena nire maiteak, lehen Karmele esaten zioten.

Gure artekoa, "gurea", ezin hobeto doa. Eta ezkondu nahi dugu, laster, atzerapenik gabe, urtearen amaieran segur aski.

Andonirekin ezkonduko naiz, jakina. Hala ere, paperetan emakume baten eta gizon baten arteko ezkontza agertuko da, Andonik ez baitu ofizialki sexua al-

datu nahi. Pentsatzen du hori ez dela nahikoa. Bere borroka eta bere idealak haratago doaz: «sexua» aukera dokumentu guztietatik desagertzea nahi du, ofizialak direnetaatik eta ofizialak ez direnetaatik, NANetaatik, familia-liburuetatik eta pasaportetatik: guztietatik.

Atzo lagun batek esan zigun "gurea" ez zitzaiola oso koherentea iruditzen, kontraesan handi bat zegoela gure ezkondu nahi izate horretan. «Alternatiboak ez direlako ezkondu behar», -esan zigun. Baina gu ez gara alternatiboak. Egia da arautik urrun bizi garela eta "gurea" ez dela ohikoena, baina guk ez dugu alternatiboak izan nahi. Izan nahi dugu, kito.

Eta ezkondu nahi dugu. Paperak



Txabi Arnal

behar bezala edukitzeko (badaezpada ere), eta Andoni haurdun dagoelako! Tripa hasi zaio nabaritzen... eta batek baino gehiagok pentsatzen du Andonirena garga-gardo-sabela dela. Baina ez, oker dabilta. Nahi genuen eta lortu dugu. Haurdun gaude. Eta pozik, oso pozik.

Hau da esan nahi nizuena. Eta esan dut. Istorio honi ez zaio ondoriorik ez ikaskizunik atera behar. Horrela da Andonik eta biok horrela izatea erabaki dugulako eta nahi izan dugulako.

Kontatu nahi nuzuen, besterik ez.

GOMENDIOA: lagun diezaiokezu artikulu honen irakurketzeari Lou Reeden *Transformer* diskoarekin.

«Gure artekoa, "gurea", ezin hobeto doa. Eta ezkondu nahi dugu, laster, atzerapenik gabe...»



Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti

SAN PELAYO
HORTE EL BARRIO + CLINICA CENTRAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI C.O. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarak orduka. © 662 012 834.

Zazpi urtetako esperientzia eta Eusko Jaurlaritzako titulazioak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko. Orduka, gauez zein egunez. © 603 514 085.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketarak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka. © 681 310 989.



Urriaren 28an Zorionak Eder! Gure txikitxua handia egin da! 6 urte beteko dituzu. Asko maite zaitugu Izaro, aita eta ama.



Irailaren 25ean, Carlos, eta 27an, Oihane Zorionak zuen urtebetetzearen familiaren partez.



Azaroaren 10ean Zorionak etxeko arrain txikiari! Espero dugu zure egun honetan oso ondo pasatzea. Belarri tirakada handi-handia familiaren partez.



Urriaren 31n Zorionak Lander! Muxu pila etxekoan partez zure bostgarren urtebetetzearen.



Azaroaren 5ean Zorionak Naia zure 11. urtebetetzearen! Primeran pasatu zure egunean eta musu handi bat etxekoan partez.



Azaroaren 13a Zorionak Aitor! 7 urte baztarrak nahasten! Ondo pasa! Patxo erraldoi bat.



azaroak 15an Zorionak Libe zure 3. urtebetetzearen familia guztiaren partez. Mila patxo!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: Azaroaren 13a.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MALLABIA
1993**

Argazki hau 1993ko ekainaren 20an ateratakoa da. Egun horretan inauguratu zen Gereako probaleku berria, hormigoizkoa. Ordura arte lurrezko probalekua zeukaten eta giro txarra zenean nahikoa lan izaten zuten probak egiteko. Aurtain, urriak 4an utzi gaituena, proba honetan akulari ibili zen. Julianek kontatzen dau astoa Zaldibarko Baldomini erosi ziola eta berarekin lehenengo proba zela egun horretakoa. Argazkikoaren aurretik beste hiru proba egin omen zituzten eta azkenak hasi zirenean, euria hasi zelako bertan behera utzi beharra izan zutela kontatu dute Aldapa eta Guenengo Julian Gerenabarre-nak. Julian bera argazkian ikusten ez bada ere, hor dago Aurtainen atzean, Aldapakin batera laguntzaile.

**ERMUA
1973**

Gabriel Delgado eta Rosario Iriondo senar-emazteak 5 seme-alaba izan zituzten, kopuru ohiko samarra sasoi baten. "Familia numerosa" legez zegokien onurez aprobetxatzeko (garraio publikoetan, ikasketetarako liburu eta beketan...) argazki hau atera zuten familia-libururako. Ezkerretik eskumara daude Agurtzane eta Iñaki tente eta jarrita Rosario ama, honen altzoan Ainhoa, Gabi, Pili eta Gabriel aitxa.

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik


Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

LONDON
-taberna-

Drogeteniturri aldizkariak urtebetetzea ospatuko du azaroan. Zenbatgarren urteurrena izango da? Hori izan da hilabete honetako galdera. Erantzun dutenen %34k uste du erantzuna dakiela, baina batek bakarrik asmatu du urte kopuru zehatza: 30!



■ Bai: 22 boto.
■ Ez: 43 boto.

Urriaren 10etik 17ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 65 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

- | | |
|--------------------------------------|--|
| ● Iñigo Jimeno 31 urte?? | ● Santi Sarmiento 32 |
| ● Jorge Gallego Ayuso 25 urte | ● Ivan Palacios Martinez 28 |
| ● Rafael Hernandez Justel Idearik ez | ● Jabi Vidal Mendoza 30 |
| ● Eva Aguado Gomez 33? | ● Juan A. Fernández García 25 |
| ● Torres Ruiz Araceli 25 urte | ● Maria Luisa Mandiola Arregui 25 urte |



URRETA burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ZINEA

Hilaren 2tik 4ra
Hilaren 9tik 11ra
Hilaren 16tik 18ra
Hilaren 23tik 25era
Hilaren 30etik 2ra
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 7
Hilak 14
Hilak 21
Hilak 28
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 3
Hilak 10
Hilak 17
Hilak 24
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

ANTZERKIA

Hilak 8
 Antzerkia: "Boza!",
 Euri artean taldea.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian. 10€

Hilak 23
 Antzerkia: "Ovarios verdes fritos", Detritus Teatro.
 20:00etan.
 Lobianon. Doan.

Hilak 29
 Antzerkia: "Lur", Xake taldearen eskutik.
 20:00etan. Ermua Antzokian. 8€

MUSIKA

Hilak 1
 Kontzertua: Nogen.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian. 10€

Hilak 16
 Blues kontzertua: Blues Whale.
 20:00etan.
 Lobianon. 10€

Hilak 20
 Zezilia Deunaren kalejira.
 18:30ean.

Hilak 22
 Zezilia Deunaren diana.
 7:00etatik aurrera.

Hilak 22
 Zezilia Deunaren jaialdia.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian. 3€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 16
 Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez.
 17:30ean.
 Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 23
 Haurrentzako antzerkia: "Jon Braun", Anita Maravillas taldea.
 17:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

Hilak 30
 Haurrentzako ipuin-kontaketa.
 17:30ean.
 Lobiano Kultur Gunean.

ERAKUSKETAK

Hilaren 18tik 1era
 Margo erakusketa: Mugartea taldearen 25. urteurrena.
 18:00etatik 20:00etara.
 Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 9
 XXX. San Martin Azoka: hainbat ekitaldi.
 Orbe kardinalaren plazan eta inguruko guneetan.
 11:00etatik aurrera.

Hilak 11:
 Gaztañerre: Kalejira, afaria eta gaztainen banaketa.
 19:00etatik aurrera.

Hilak 15:
 Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Julio Soto eta Amets Arzallus.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10€

Hilak 16:
 Magostos: Gaztainen banaketa musikarekin girotuta.
 11:00etatik aurrera.
 Galiziako Zentroan.

Hilak 24:
 Kale margo erakusketa: Mugartea taldearen 25. urteurrena.
 11:00etatik aurrera.
 Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 25etik 2ra
 Gaztela-Mantxako kultur astea: hainbat ekitaldi.
 Gaztela-Mantxako Zentroan.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**

**PRO
 arraindegia**



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

**Infreñu
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza
 943 174584
 www.infretaberna.com



ALBOKA




**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS


- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zoareko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK
**Egaña**
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

ERMUAN, XXX. SAN MARTIN AZOKA



Euskal
Birusa
Elkartea

AZAROAREN 9an LARUNBATA

11:00

Plazan: Postuak, dantzak, saiheski-pintxoak eta taloak.
Valdespinan: Belar-meta eta
abere eta hegaztien erakusketa.
Herriko kaleetan barrena: Urkabustaizko joaldunak.
Probalekun: Idi pareak.
Izelaietan: Herri kirolak.
San Martin plazan: Ikastetxeen postuak
eta umeentzako jolasak.

13:30

Sari banaketa postuz-postu.

15:30

Babajana Izelaieta kalean
(Jator kiroldegiaren gainean)

18:00


Luhartz erromeria plazan.

18:30

Kalejira gaiteroekin.

19:00

Errifa zozketa eta
larraindantza plazan.



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK

